MARTXOA - APIRILA / 2024

# KULTUR AGENDA









Artika
Ballariain
Berriobeiti
Berriogoiti
Elkarte
Larragueta
Lotza
Oteitza

# BERRIOBEITI



Edita: Ayuntamiento de Berrioplano
D.L: NA 253-2015
Difusión gratuita

Casa de Cultura
MARIA DE MAEZTU
Kultur Etxea

**Azaleko argazkiak:** “Soñando con Peer Gynt” (04-21); “Sexpiertos” (4-13); Lidón Sorianoren solasaldia Palestinaz (03-15); Erronka: “2 orduko zumba” (03-09); “Akelarre” (03-09)

# BERRIOBEITIKO KULTUR AGENDA

**MARTXOA-APIRILA/2024**
Editorea: Berriobeitiko Udala
Doako zabalpena

## ›› OHARRAK

**PUNTUALTASUNA**
Ikuskizuna hasi ondoren, ezin izanen da inor aretoan sartu.

**SOINU-SEINALEAK**
Aretoan sartzerakoan deskonektatu beharko dira.

**GRABAKETAK ETA ARGAZKIAK**
Debekatuta daude.

**JANARIAK ETA EDARIAK**
Aktoreek eta ikusleek merezi duten begiruneagatik, barne-ikuskizunetan ezin izanen da jan, ezta edan ere.

**ITZULTZEAK**
Sarrera bat erosteko ordaindutako dirua itzultzeko arrazoi bakarra ikuskizuna bertan behera uztea izanen da.

**SARRERAK**
Zenbakidun sarrerak.

## ›› TXARTEL SALMENTA

Ikuskizunetarako txartelak María de Maeztu Kultur Etxean erosten ahalko dira **emanaldi bakoitzaren aurreko astean. Ez da telefono bidezko erreserbarik onartuko**.

NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

**LEIHATILAN**
(Kultur Etxeko Atezaindegian). Ikuskizun bakoitza hasi aurreko ordubete lehenagotik.

**ALDEZ AURRETIK**
**www.berrioplano.es** webgunean eta Kultur Etxeko atezaindegian, 16:00etatik 21:00etara.

## ›› KULTUR EKIPAMENDUA

**KULTURA ZERBITZUA**
Udaletxean **Tel:** 948 30 31 29
**Posta elektronikoa:** cultura@berrioplano.es

**MARIA DE MAEZTU KULTUR ETXEA**
Iturribidea, 1. Artika.
**Tel:** 948 38 32 54
**Kafetegi-Taberna**
**Tel:** 948 78 31 57

**EUSKARA ZERBITZUA**
Udaletxean
**Tel:** 948303129 / 634515384
**Posta elektronikoa:** euskara@berriobeiti.eus

**KIROLA ETA GAZTERIA ZERBITZUA**
Udaletxean **Tel:** 948 30 31 29
**Posta elektronikoa:** deporteyjuventud@berrioplano.es

**LIBURUTEGI PUBLIKOA**
Maria de Maeztu Kultur Etxean
**Neguko ordutegia:** 14:00etatik 20:00etara
**Tel:** 948 38 26 22
**Posta elektronikoa:** bibliarc@cfnavarra.es

**ERABILERA ANITZEKO ERAIKINA**
**BERRIOBEITI**
Nuestra Señora de la Purificación, 11.
**Ordutegia:** 10:00etatik 22:00etara.
**Tel:** 948 91 04 23 (kafetegi-taberna)

**ARTIGUNE I**
**ARTIKA** Leonor Akitaniakoa, 30
**Informazioa:** 948 30 31 29

**ARTIGUNE III**
**ARTIKA** Leonor Akitaniakoa, 30
**Informazioa:** 948 30 31 29

**ORREAGA MUSIKA ESKOLAKO PATRONATUA**
María de Maeztu Kultur Etxea
**Tel:** 616 72 52 18
**Posta elektronikoa:** orreagamusika@gmail.com

**KONTZEJU ETXEAK**
**AITZOAIN**
Oronsuspe auzoa, 3

**AÑEZKAR**
San Andres, 6
**Tel:** 618 77 84 61

**ARTIKA**
Kontzeju Etxea San Marcial, 9
**Tel:** 948 38 37 93
“María Domínguez” Gizarte-Etxea María Domínguez, 3
**Tel:** 948 38 37 93

**BALLARIAIN**
San Pedro, z/g

**BERRIOGOITI**
Santa Eulalia, 39
**Posta elektronikoa:** concejoberriosuso@yahoo.es

**BERRIOBEITI** Kale Nagusia, 2

**ELKARTE** Purificación, 16

**LARRAGETA**
San Esteban, z/g
**Posta elektronikoa:** concejo.larragueta@gmail.com

**LOTZA** San Joan, z/g
**Tel:** 690 68 68 50

**OTEITZA** San Joan, 6
**Tel:** 651 65 83 14

## ›› ASTE SANTUKO HIRI KANPALDIAK HAURRENTZAT

**IZEN-EMATEA**
MARTXOAK 5, 6 eta 7

948 012 012
Infolocal

**Kanpaldien datak:**
apirilak 2, 3, 4 eta 5
**Adina:** 2012tik 2019ra bitarte jaiotakoak (biak barne)
**Ordainketa:** martxoak 12 eta 13.
24 € parte-hartzaile bakoitzeko (ordainketa txartel bidez)



Berriobeitiko Udalak eskainitako hiri kanpaldiak Haur Hezkuntzako 2. mailatik Lehen Hezkuntzako 6. mailara bitarte eskolatuak dauden haurrendako dira, hau da, izena ematean ikasmaila horietako batean eskolatuak egon behar dute; beraz, 2012tik 2019ra bitarte jaio diren haurrentzat dira (biak barne).
Kanpaldiak gune ludikoak dira, familia eta lana bateragarri egiteko dauden beharrei erantzuteko; era berean, Zendeako haurrendako josteta eta garapen guneak sortu nahi dituzte hainbat gai lantzeko, aldi berean balioak eta sormena sustaturik.

**Argibideak udal webean.**

## ›› ORREAGA MUSIKA ESKOLA

**ENTZUNALDIAK**

Martxoan eta apirilean, Musika Eskolako ikasleen hainbat entzunaldi eginen dira. Egitarau guztia hementxe duzu:
**www.escuelademusicaorreagamusikaeskola.com**

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**Sarrera:** doan



## 01 OSTIRALA

### IBILALDI OSASUNGARRIA



## Bizitza aktiboa

“Ibilaldi osasungarriak” programa, hilabete bakoitzeko lehen ostiraletan.

**Elkarteko elizatik**
**Ordua:** 10:00
**Izen-ematea:** ez da eman beharrik

## 09 LARUNBATA

### ERRONKA: “2 ORDUKO ZUMBA”



2 orduko zumba masterclassa, hau da, dantza etengabea Berriobeitiko zumba monitoreen eskutik; hornigaiak izanen dira, bai eta dutxa hartzeko aukera ere. Erroldatuek izanen dute lehentasuna.

**Berriobeitiko erabilera anitzeko eraikina**
**Ordua** 10:30-12:30
**Izen-ematea:** 948 303129 deituz (8. luz.) martxoaren 4tik 6ra
**Leku mugatuak**

## 09 LARUNBATA

### GAZTE ETA HELDUENDAKO ANTZERKIA

## “Akelarre”

VIRGINIA IMAZ – OIHULARI KLOWN

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**Ordua:** 19:00
**Prezioa:** 7 € aurrez / 8 € leihatila
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua



Klown antzerki ikuskizun honetan, Imazek hainbat gai ekarriko dizkigu umorez eta xamurtasunez, hala nola begizkoa, deabruarekiko tratua, sorginkeriak, sorgin-ehiza..., azpian desberdinkeria eta emakumeen kontrako indarkeria daudela. Pauxa sorgin ikastuna da eta akelarre inprobisatua egitera gonbidatu du publikoa. Ahalduntze ekitaldia da, bai bizitzan bai agertokian, emakume zaharrak, jakintsuak eta genero-aginduen disidenteeak onartzen ez dituztenen aurrean. Virginia Imaz kontzientzia feminista duen ipuin-kontalaria eta pailazoa da lanbidez, eta Emakunde Saria jaso du emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak erakusteko ahaleginagatik, eta berdintasunaren alde lan egiteko aliantzak sortzeagatik.

# PROGRAMAZIOA MARTXOA 2024

## 15 OSTIRALA

### KORRIKAKO JARDUERAK

Korrika simulakroa Berriobeiti eta Berriogoiti bitartean.

**Berriobeiti-Berriogoiti**
**Ordua:** arratsaldean zehar (Aurrerago informazio zehatzagoa eskainiko da)
**Antolatzaileak:** BES elkartea eta Berriobeitiko Korrika Batzordea

## 15 OSTIRALA

### SOLASALDIA

**“Giza krisia Palestinan: gatazkaren gakoak”**

LIDÓN SORIANO (larrialdietako doktorea eta erizaina, 20 urtez bertan egondakoa)

Hedabideek gatazka baten berri eman badute, arabiarren eta israeldarren arteko gatazka izan da, baina aldi berean da gutxien ulertuenetako bat. Solasaldian, Sorianok une historiko bakoitza aletu eta Palestina egun zertan den azalduko du. Helburua da egungo egoerara nola iritsi den ulertzea eta irtenbide gauzagarriak proposatzea.



**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**Ordua:** 19:00

## 16 LARUNBATA

### KORRIKAKO JARDUERAK

- Txikientzako petoen tailerra eta Korrika Txikia auzoko kaleetan zehar.
- Bazkari autogestionatua

**Artika (Artikaberri)**
**Ordua:** goizean zehar (aurrerago informazio zehatzagoa eskainiko da)
**Antolatzaileak:** BES elkartea eta Berriobeitiko Korrika Batzordea

## 16 LARUNBATA

### KORRIKA

Korrika udalerrian zehar; zehazki, Artikako hainbat eremutan barna. Ondoren, txistor jana Txolinenea elkartean.

**Artika eta Artikaberri**
**Artika (herria):** 18:00 aldean
**Artikaberri:** 18:25 aldean

## 22 OSTIRALA



# "Cuentos delikatessen" | "Delikatessen ipuinak"

**IPUIN-KONTALARIA**
Gaztelaniaz eta euskaraz

SERGIO DE ANDRÉS

**María de Maeztu Kultur Etxeko erakusketa gela (Artika)**
**Ordua:** 18:00
**Publikoa:** 4 urtetik gora
**Sarrera:** librea edukiera bete arte

**Antolatzailea:** Liburutegi Publikoa

## 24 IGANDEA

**KONTZERTUA**

ORREAGA MUSIKA ESKOLAKO ORKESTRA ETA ABESBATZA ETA TORROELLA DE MONTGRÍKO ESCOLA MUNICIPAL DE MÚSICA I DANSA

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**Ordua:** 12:00
**Sarrera:** doan





## 05 OSTIRALA

### IBILALDI OSASUNGARRIA



## Bizitza aktiboa

"Ibilaldi osasungarriak" programa, hilabete bakoitzeko lehen ostiraletan.

**Berriobeitiko Kontsultategitik**
**Ordua:** 10:00
**Izen-ematea:** ez da eman beharrik

## 13 LARUNBATA

### HELDUENDAKO ANTZERKIA

## "Sexpiertos"

TANTTAKA TEATROA

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**Ordua:** 19:00
**Prezioa:** 7 € aurrez / 8 € leihatila
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua



Ana goxoki saltzaileak eta Nico garun-paralisia duen kazetariak beren bizipen afektibo sexualak azalduko dituzte inolako konplexurik gabe, norbere paralisiarekin, beldur, amets eta ilusio ezberdinak ditugula erakusteko. Bi lagunen istorioa, umorez eta minez tindatuta.



Hamaika sari jasotako Tanttaka taldearen proposamen murgilgarri honi Max sari bat eman zioten 2023an. Mireia Gabilondok zuzendurik, Aitziber Garmendia eta Telmo Irureta dira protagonista; azkena aktore berri onenaren Goya saria irabazitakoa "La consagración de la primavera" filmagatik.

**21** IGANDEA

MUSIKA ETA ANTZERKI IKUSKIZUNA

# "Soñando con Peer Gynt"

BELÉN OTXOTORENA

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**Ordua:** 18:00
**Prezioa:** 5 € aurrez / 6 € leihatila
**Publikoa:** familientzat 5 urtetik gora
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua





Gure istorioko protagonistek ideia zoragarria izan dute: hilabetez jarraian lo egin nahi dute etengabe, horrela uda osoa esna ibiltzeko aukera ederra izanen dutelakoan, gustukoena edo gehien nahi dutena egiteko. Egun argi betean, ordea, ezinezkoa da lo egitea. Eta ardiak zenbatzearen kontu hori modatik at dago erabat. Beraz, istorio irrigarriak asmatzea erabaki dute lokartzen laguntzeko.
Saioak Henrik Ibsen antzerkigile eta Edward Grieg musikagile norvegiarren lana ematen du ezagutzera, bai eta Tom Johnson konpositore estatubatuarraren sorkuntza lan minimalistak ere, haien musikaren eta kontakizunen alderdirik dibertigarrienak eta zentzugabeenak agerian jarrita. Hori guztia, *Peer Gynt* pertsonaia lagun harturik. Ibsenek ondutako pertsonaia hori inspirazio-iturri izan zitzaion Carmen Santojari orainaldiaz gogoeta egiteko parada ematen duen ipuina idazteko.
Musika eta antzerki ikuskizuna da, lau eskuko pianoarekin (Francesca Crocolino eta Silvia Sucunza) eta antzezlearekin (Belén Otxotorena).